

BESTELAKO XEDAPENAK

INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA ETA ETXEBIZITZA SAILA

2048

EBAZPENA, 2018ko martxoaren 26koa, Ingurumeneko sailburuordearena, zeinaren bidez jendaurrean jartzen baita Petróleos del Norte, S.A. enpresari Muskiz, Zierbena eta Abanto-Zierbenako udalerrietan emandako ingurumen-baimen bateratuaren berrikuspena.

1/2016 Legegintzako Errege Dekretuak kutsaduraren prebentzioari eta kontrol integratuari buruzko Legearen testuategina onartu zuen. Legearen xedea atmosferaren, uraren eta zoruaren poluzioa ekiditea da, eta hori posiblea ez denean, murriztu eta kontrolatzea. Horrela, poluzioaren prebentzioari eta kontrol integratuko sistema bat ezartzen du, ingurumena bere osotasunean babesteko.

Aipatutako 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuak ezarritakoari jarraituz, instalazioen eraikuntzak, muntaiak, ustiaketak edo lekualdaketak, eta funtsezko aldaketek ingurumen-baimen bateratua behar dute, baldin eta lege horren I. eranskinean jasota badaude. Ingurumen-baimen bateratuaren helburua hau da: araua bete behar duten instalazioek euren xedea bete dezaten beharrezkoak diren baldintzak ezartzea, baimena emateko parte hartu behar duten herri-administrazio ezberdinen arteko koordinazioa bermatzen duen prozedura baten bitartez, betiere partikularren kargak eta izapideak arintzearen.

2014ko urriaren 28an, Europako Batzordearen 2013ko urriaren 9ko Erabakia argitaratu zen Europar Batasuneko Aldizkari Ofizialean. Erabaki horrek eskuragarri diren teknologia hobereenen inguruko ondorioak ezartzen ditu petrolioaren eta gasaren tratamendu jarduerarako. Erabakia Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren emisio industrialei buruzko 2010/75/EB Zuzentzarauak ezarritakoaren arabera garatzen da (2014/738/EB Erabakia).

Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailburuordetzak Petróleos del Norte, S.A. enpresari emandako ingurumen-baimen bateratua berrikusi behar du, aipatutako 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuak xedatutakoaren arabera.

Aipatutako 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuak araututakoari jarraituz, Petróleos del Norte, S.A. ren ingurumen-baimen bateratua berrikusteko aurkeztutako dokumentazioa jendaurrean jarri beharra dago, Euskadiko Autonomia Erkidegoaren esparruan.

Euskal Herriko Ingurugiroa babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorra, kutsaduraren prebentzioari eta kontrol integratuari buruzko Legearen testuategina onartzen duen 1/2016 Legegintzako Errege Dekretua, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen apirilaren 11ko 77/2017 Dekretua, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legea, eta oro har eta bereziki aplikagarri den bestelako legedia ikusita, hau,

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Jendaurrean jartzea Petroleos del Norte, S.A.,k Muskiz, Zierbena eta Abanto-Zierbenako udalerrietan ingurumen-baimen bateratua berrikusteko egindako eskaera, 30 eguneko epean, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik hasita. Epe horretan, bidezko irizitako alegazioak aurkeztu ahal izango dira.

2. artikulua.— Alegazioak Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saileko Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritzan aurkeztuko dira (Donostia kalea 1, Vitoria-Gasteiz).

3. artikulua.— Aurreko artikuluan aurreikusitakoa betetzeko, eskaera eskuragarri egongo da Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saileko Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritzan (Donostia kalea 1, Vitoria-Gasteiz); baita Bizkaiko Lurralde Zerbitzuan (Concha Jeneralaren kalea 23, 7. solairua, Bilbao).

Dokumentazioa eskuragarri egongo da, halaber, Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoan (<https://www.euskadi.eus>), herritarrek errazago eskura dezaten.

Era berean, herritarrek dokumentazio hori errazago eskura dezaten, aipatutako eskaera Musikiz, Zierbena eta Abanto-Zierbenako udaletara bidaliko da, jendaurrean erakutsi behar den aldiak ikusgai izan dadin.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko martxoaren 26a.

Ingurumeneko sailburuordea,
MARIA ELENA MORENO ZALDIBAR.